# 1991-92/1

# ZINEMA-UNIBERTSITATEA

AULA MAGNA
DE LA FACULTAD DE ZORROAGA
(EXCEPTO EL 14 DE MAYO:
IGLESIA DE ZORROAGA)



eman ta zabal zazu
universidad del país vasco
euskal herriko unibertsitatea

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

KULTUR
UDAL
PATRONATUA

26 de Marzo, 11'30 h.

## PILAR MIRÓ

# Cine y mujer en el Estado Español

Presenta: Mª Angeles Goikoa.

La carrera como directora de cine de Pilar Miró ha estado llena de interrupciones, por su dedicación alternada a otro tipo de tareas, siempre relacionadas con lo audiovisual. 1991 ha sido el año de su regreso a la dirección, después de cinco años de ausencia, con la película ganadora del Oso de Plata en el Festival de Berlín de 1992, **Beltenebros**.

Pilar Miró, nacida en Madrid en 1940, realizó estudios de Periodismo y Derecho, y se licenció en la Escuela Oficial de Cine en 1968, donde posteriormente dio clases de guión y realización. Después de realizar numerosos espacios dramáticos en televisión, basados en la literatura de Dostoievski, Unamuno o Lope de Vega, debutó en el cine con **La Petición** (1976). Desde entonces su trabajo ha estado marcado por un cierto amor al riesgo y las posturas difíciles, y por ello ha provocado frecuentemente la polémica. **El crimen de Cuenca** (1979), un duro y meticuloso seguimiento a un error judicial verídico, fue retenida durante dos años. **Gary Cooper que estás en los cielos** (1980), más cálida e intimista, mostraba a una realizadora de televisión que se enfrentaba a la posibilidad de la muerte por una enfermedad grave. Poco después de realizar **Hablamos esta noche** (1982) fue elegida como Directora General de Cinematografía, aportando la polémica política de subvenciones. En el intermedio, antes de pasar a ser Directora General de Radiotelevisión Española, realizó **Werther** (1986), un guión propio basado en Goethe.



**Pilar Miró con Terence Stamp y José Luis Gómez**

Martxoak 26, 11'30tan.

## PILAR MIRÓ

# Zinea eta emakumea Estatu Espainolean

**Aurkezlea: Mª Angeles Goikoa.**

Pilar Miróren zine zuzendari karrerak eten ugari izan ditu, tarteka beste lanetan aritu delako, beti ere ikusentzutekoekin harremanetan. 1991ean zuzendaritzara itzuli da berriro ere, bost urtetako etenaldiaren ondoren, 1992ko Berlingo Zinemaldian Zilarrezko Hartza irabazi duen **Beltenebros** filmearekin.

Pilar Miró Madrilen jaio zen 1940an, Kazetaritza eta Zuzenbide ikasketak burutu zituen eta 1968an Zine Eskola Ofizialean lizentziatu zen, bertan gidoi eta errealizazio eskolak emanez. Telebistan Dostoievski, Unamuno edo Lope de Vegaren literaturan oinarritutako makina bat programa dramatiko egin ondoren, bere estraineko filmea zuzendu zuen: **La Petición** (1976). Ordu ezkero halako arrisku nahiak eta jarrera zailek zipriztindu dute bere lana, eta horregatik polemika biztu izan du sarritan. **El crimen de Cuenca** (1979), benetako hutsegite judizial baten jarraipen gogor eta zehatza, pantailaratu gabe egon zen bi urtez. **Gary Cooper que estás en los cielos** (1980) filmeak, beroagoa eta barnekoiagoa, gaisotasun larri bat medio heriotzaren arriskuari aurre egiten zion telebistako errealizadore bat aurkeztu zigun. **Hablamos esta noche** (1982) zuzendu ondoren Zinemagintzako Zuzendari Orokor izendatu zuten, eta dirulaguntzen politika eztabaidatuari ekin zion. Tartean, Radiotelevisión Españolako Zuzendari Orokor izan aurretik, **Werther** (1986) zuzendu eta idatzi zuen, Goethe oinarritzat duen filmea.



**Patsy Kensit *Beltenebrosen***

7 de Abril, 18'00 h.

## JAVIER AGUIRRESAROBE

# Luz y fotografía en el cine

**Presenta: Mikel Iriondo.**

Javier Aguirresarobe ha aportado con **Beltenebros**, de Pilar Miró, uno de los títulos principales a su amplia filmografía como director de fotografía. Nacido en Eibar en 1948, Aguirresarobe obtuvo el diploma como director de fotografía por la Escuela Oficial de Cine en 1972. Ha trabajado como periodista y alternado su trabajo en el cine comercial con actividades en el campo del cine industrial y publicitario. En 1983 fundó junto a Imanol Uribe la productora Aiete Films. En su filmografía figuran títulos como **El proceso de Burgos**, **La fuga de Segovia** y **La muerte de Mikel**, de Imanol Uribe, **27 horas**, de Montxo Armendáriz, y **El bosque animado**, de José Luis Cuerda. Por su trabajo en **Beltenebros** ha obtenido el Goya a la mejor fotografía.

Javier Aguirresarobe acompañará su charla con un montaje audiovisual de extractos de trabajos publicitarios y de las siguientes películas: **27 horas**, **El bosque animado**, **La forja de un rebelde** y **Beltenebros**.



**Rodaje de *La fuga de Segovia***

Aprilak 7, 18'00tan.

**JAVIER AGUIRRESAROBE**

# Argia eta argazkia zinean

Aurkezlea: Mikel Iriondo.

Pilar Miróren **Beltenebros**, filmerik nagusienetako bat da Javier Aguirresarobek argazki-zuzendari gisa burututako filmografia zabalean. 1948an Eibarren jaioa, Aguirresarobek Zine Eskola Ofizialeko argazki-zuzendari diploma lortu zuen 1972an. Kazetari gisa lan egiteaz gain zine komertzialean ihardun du, bai eta zine industrial eta publizitarioan ere. 1983an Aiete Films ekoizpenetxea sortu zuen Imanol Uriberekin batera. Imanol Uriberen **El proceso de Burgos**, **La fuga de Segovia** eta **La muerte de Mikel**, Montxo Armendárizen **27 horas** eta José Luis Cuerdaren **El bosque animado** dira bere filmografiako filmerik aipagarrienak. Argazki onenari emandako Goya saria jaso du **Beltenebros**en egindako lanarengatik.

Hitzaldiarekin batera, Javier Aguirresarobek lan publizitarioen eta **27 horas**, **El bosque animado**, **La forja de un rebelde** eta **Beltenebros** filmeen zatiekin osatutako ikusentzuteko bat eskeiniko du.



*27 horas*

9 Abril, 11'30h. y 18'00h.

**XABIER LAKA**

# Alrededor del arte

**Presenta: Mikel Iriondo.**

Sobre la apasionada dialéctica entre naturaleza y cultura, sobre los mensajes sociales desde el pasado hasta el presente acerca del sentido y la función del Arte, expuesto a través de dos tiempos tan dispares y distintos como el Hoy y la Prehistoria.

El tema no se centra en las imágenes prehistóricas en el arte moderno sino en las imágenes prehistóricas y el arte moderno. Es una yuxtaposición de dos realidades diferentes en un intento de ver la realidad de una forma diferente. Entretejer las ideas e imágenes de dos muy diferentes culturas haciendo de una una metáfora para la otra y viceversa.

Xabier Laka - Ondarroa (1954). Escultor.

Las charlas estarán complementadas con proyección de diapositivas ilustrativas y comparativas del tema de las mismas.



Xabier Laka

## Aprilak 9, 11'30tan eta 18'00tan

## XABIER LAKA

# Artearen inguruan

### Aurkezlea: Mikel Iriondo.

Izadiaren eta kulturaren arteko dialektika grinatsuari eta iraganetik orainaldirarte Artearen zentzu eta funtzioak eragindako mezu sozialei buruzko hitzaldia, Orainaldia eta Historiaurrea, bi aro zeharo desberdinen bidez azaldua.

Hitzaldiaren mamia ez da historiaurreko irudiak arte modernoan, historiaurreko irudiak eta arte modernoa baizik. Bi errealitate desberdin uztartuko dira errealitatea desberdin ikusteko saioan. Bi kultura erabat desberdinek sortutako ideia eta irudiak korapilatu, bata bestearen metafora bihurtuz eta alderantziz.

Xabier Laka - Ondarroa (1954). Eskultorea.

Hitzaldiarekin batera diapositibak proiektatuko dira, solasgaiaren erakusgarri eta osagarri.



In-habitable I
**Harria, 1990**

## 14 Abril, 11'30h. y 17'30 h.

## ENRIQUE URBIZU

# El Cine: el oficio de narrar historias

**Presenta: José Luis Rebordinos.**

Enrique Urbizu consiguió una de las películas españolas más importantes de 1991 con **Todo por la pasta**, su segundo largometraje, un *thriller* trepidante con rasgos de comedia, ambientado en Bilbao. Urbizu ya había mostrado sus dotes para la comedia en su primera película, **Tu novia está loca** (1988). Nacido en Bilbao en 1962, donde se licenció en Publicidad en la Facultad de Ciencias de la Información, Urbizu comenzó a dirigir cortometrajes a los quince años. Ha participado en diversas actividades relacionadas con lo audiovisual y, junto al productor Joaquín Trincado, trabaja en la empresa Creatívideo, en la que combinan las producciones de ficción con la realización publicitaria.

Enrique Urbizu planteará su forma de entender la realización cinematográfica desde diversos aspectos: la preproducción, el rodaje, el montaje, la puesta en escena, la relación entre el narrador y el público, la presión económica, etc.



Aprilak 14, 11'30tan eta 17'30tan

ENRIQUE URBIZU

# Zinea: istorioak kontatzearen ofizioa

**Aurkezlea: José Luis Rebordinos.**

Enrique Urbizuk 1991ko filme espainiarrik garrantzitsuenetako bat burutu zuen: **Todo por la pasta**, bere bigarren luzemetraia, komedia ezaugarriak dauzkan "thriller" bizi-bizia, Bilbon girotua. Urbizuk erakutsiak zituen jadanik komediarako dohaiak bere lehen luzemetraian, **Tu novia está loca** (1988). Bilbon jaioa 1962an, Urbizu Publizitatean lizentziatu zen bertako Informazio Zientzien Fakultatean eta hamabost urte zituela laburmetraiak zuzentzen hasi zen. Ikusentzutekoekin zerikusia duten hainbat ihardueratan parte hartu du eta, Joaquín Trincado ekoizlearekin batera, Creativideo enpresan lan egiten du, fikziozko produkzioak eta errealizazio publizitarioa tartekatuz.

Zine-errealizazioa nola ulertzen duen azalduko digu Enrique Urbizuk alderdi desberdinen bidez: aurrekoizpena, errodajea, osaketa, eszenaratzea, narratzailearen eta ikuslegoaren arteko harremana, presio ekonomikoa, etab.



Enrique Urbizu
*Todo por la pasta*
filmearen
errodajean

30 Abril, 11'30h.

# Enrique V

**G**ran Bretaña, 1989. **Dirección**: Kenneth Branagh. **Productor**: Bruce Sharman, para Renaissance Films, BBC y Curzon Films. **Guión**: Kenneth Branagh, según la obra de William Shakespeare. **Fotografía**: Kenneth McMillan, color. **Música**: Patrick Boyle. **Intérpretes**: Kenneth Branagh, Derek Jacobi, Brian Blessed, Ian Holm, Paul Scofield, Michael Maloney, Peter Cushing. **Duración**: 137m. aprox.



**Sinopsis**

*Las relaciones del rey de Inglaterra, Enrique V, con Francia van empeorando. El monarca inglés quiere recuperar unos territorios en poder de Francia y lleva a su ejército a la sangrienta batalla de Agincourt, donde se cuestionará el valor de la guerra y los sufrimientos de los soldados, antes de resultar vencedor.*

Kenneth Branagh sorprendió hace un par de años con esta espléndida versión de **Enrique V**, y fue recibido como el continuador de una serie de entregados adaptadores al cine de las obras de Shakespeare. Muertos ya Welles y Olivier, los dos grandes directores-intérpretes de Shakespeare en el cine, la corona era

suya. Branagh aún no tenía treinta años, y aunque había interpretado repetidamente a Shakespeare en el teatro, fue un atrevimiento por su parte hacer su primera película como director con un proyecto así. Pero salió victorioso.

Frente a la pulcritud y elegancia de la versión de Olivier, Branagh hizo un **Enrique V** realista, violento en sus arranques de ira, y sucio y comprometido en las escenas de batalla. Aprovechó para dar unos toques antibelicistas a las duras reflexiones del rey en la noche antes de la batalla, el fragmento más impactante de la película, cuando el rey se hace pasar por un soldado más en la oscuridad, y busca la opinión del sufrido guerrero que está a punto de bañarse en sangre y barro. El monólogo lleno de dudas y el realismo sobrecogedor de la batalla posterior, son espléndidos, coronados por el larguísimo *travelling* que sigue al rey por un campo lleno de heridos y cadáveres, con el cuerpo de un soldado muerto en su hombro, mientras suena el *"Non nobis, Domine"*, compuesto e interpretado por Patrick Doyle, en el mejor momento de su perfectamente adaptada banda sonora.

Branagh inicia la película con el personaje del coro invitando al espectador a abrir las puertas del teatro para desatar la imaginación y las pasiones. Como director pone en su película mucho de las dos cosas. Como actor se muestra lleno de recursos: duro, sensible, irónico, amable, valiente, derrotado y amoroso. El legado es suyo.



Apirilak 30, 17'30tan

# Hamlet

**Britainia Handia, 1948. Zuzendaria:** Laurence Olivier. **Gidoia:** Alan Dent eta Laurence Olivier. **Argazkia:** Desmond Dickinson. **Musika:** William Walton. **Ekoizpena:** Two Cities. **Antzezleak:** Laurence Olivier, Jean Simmons, Basil Sydney, Eileen Herlie, Felix Aylmer, Stanley Holloway, Peter Cushing, Anthony Quayle. **Iraupena:** 155'.

**Enrique V** (1944), Shakespeareren bere lehenengo egokipen zinematografikoa burutu ondoren, Laurence Olivier erabat murgilduko da berriro ere **Hamlet**en proiektuan, bere gain hartuz zuzendaritza, gidoia, Alan Dent-en laguntzaz, eta antzezpena. Agidanez ez zuen filmea berak nahi bezala zuzenduko zuen inor aurkitzen, eta zuzendari lanetan sartu zen, ez bere gogoz, egoerak hartaratuta baizik. Eta oraingoan jo ta pasa egin zion bere aurreko filmeari, jatorrizkoarekiko leialtasunaren, antzerkilanaren iraupena ezinbestean laburtuz, eta antzokiko lau hormak erabat baina gehiegi nabaritu gabe puskatzen dituen baliabide zinematografikoen erabileraren artean oreka aurkituz.

Olivier-i maiz leporatu izan zaio Shakespearerekin soilik antzerki filmatua egin izana. Oraingoan hori ez da egia: etengabe erabiltzen ditu dekoratuak eta elementu naturalak, aurpegiak eta kamara mugimenduak bere pertsonaiei indarra eta adierazkortasuna emateko. Dorreko eskaileran zeharreko ibilbide hori, Ofeliarekin gogor mintzatu ondoren, itsaso harrotuari etsituta begira dagoen Hamleten bururaino, edo erregeei beraien ekintza zitalak kilikilarien antzezpenean isladaturik ikusarazten dizkien kamara-mugimenduak, eszenaratze landu eta polifazetikoaren bi adibide besterik ez dira. Baliteke Olivier Hamlet gogortu xamarra izatea, bortitzegia horren arima oinazetuarentzat, baina hain zuzen ere horregatik, pertsonaiak dituen ironialdiak eraginkorragoak suertatzen dira.



## 14 Mayo, 11'30h. y 17'30h.

## FERNANDO GONZALO

# Concierto didáctico de órgano

**Presenta: Lontxo Ohiarzabal**

Funcionamiento del órgano y explicación sobre la diferencia de registros, sus familias, su uso y combinación.

**Programa:**
PASTORAL de J. S. Bach
SONATA de Gorriti
SONATA de Larrañaga
PASTORAL de César Frank

**FERNANDO GONZALO**

Nace en San Sebastián. Cursa estudios Universitarios y Musicales en Valencia, donde obtiene la Licenciatura en Ciencias Químicas y el Título Profesional de Piano. Estudia Organo en San Sebastián con el maestro Esteban Elizondo, terminando con el Primer Premio Fin de Carrera.

Es organista de la Coral del Corazón de María de San Sebastián, con la que ha participado en numerosos conciertos. Desde 1977 interviene en los Festivales Provinciales de Organo de Guipúzcoa. Ha actuado en diversas poblaciones de Alava, Guipúzcoa, Vizcaya y Santander. El VI Festival Internacional de Medellín (Colombia), la Sala de Conciertos de la Biblioteca Arango, de Bogotá y la Octava Semana Internacional de Euskal Herria representan sucesivos éxitos en su labor de Concertista.



19 Mayo, 11'30h. y 17'30h.

JULIO MEDEM

# Hacer cine: química y milagro

Presenta: Sara Torres.

Julio Medem muestra en **Vacas**, su primer largometraje, una intención de hacer un cine con sentimientos y sugerencias, antes que con historias de desarrollo convencional. Nacido en 1958, este director donostiarra ha pasado por diversos trabajos y experiencias, siempre relacionados con el cine: crítico cinematográfico de "La Voz de Euskadi", ayudante de dirección en **Crónica de la Segunda Guerra Carlista** (1987), montador en varios cortometrajes ajenos, autor de un mediometraje dentro de la serie "Huellas" de TVE y otro de carácter pedagógico para El Diario Vasco y guionista de diversos proyectos no realizados ("La leche Basterretxe", "Entre dos mares", "Mari en la tierra"), se inició en el cortometraje con seis trabajos en Super 8, y dos en 35 mm., **Patas en la cabeza** (1985) y **Las seis en punta** (1987), que cosecharon diversos premios. **Vacas** fue presentada en la 42ª edición del Festival de Cine de Berlín.



**Cándido Uranga, Pilar Bardem y Ana Torrent en *Vacas***

**Maiatzak 19, 11'30tan eta 17'30tan.**

## JULIO MEDEM

# Zinea egitea: kimika eta miraria

**Aurkezlea: Sara Torres.**

**Vacas**, bere lehen luzemetraian adierazten duenez Julio Medemek sentimentuz eta iradokizunez egin nahi du zinea eta ez era konbentzionalean landuaz. 1958an jaioa, zuzendari donostiar honek hainbat lan egin ditu, zinearekin harremanetan beti: zine kritikoa "La Voz de Euskadi"n, zuzendari laguntzailea "Crónica de la Segunda Guerra Carlista"n (1987), osaketaria besteren laburmetraia batzutan, TVEko "Huellas" sailari dagokion erdimetraia bat eta El Diario Vascorentzako beste erdimetraia pedagogiko bat egin ditu eta burutu gabeko zenbait proiekturen gidoia idatzi du ("La leche Basterretxe", "Entre dos mares", "Mari en la tierra"), sei laburmetraia egin ditu Super 8an, eta bi 35 mm.tan, **Patas en la cabeza** (1985) eta **Las seis en punta** (1987), hainbat sari eskuratutakoak. **Vacas** Berlingo 42. Zinemaldian aurkeztua izan da.



**Emma Suárez *Vacasen***




1992

### Martxoak 26, Osteguna. 11'30tan.

Hitzaldia-elkarrizketa: PILAR MIRO, "Zinea eta emakumea Estatu Espainolean".
Aurkezlea: Mª Angeles Goikoa, Euskal Zine Ekoizlen Elkartea.

### Apirilak 7, Asteartea. 18'00tan.

Hitzaldia: JAVIER AGUIRRESAROBE, "Argia eta argazkia zinean".
Aurkezlea: Mikel Iriondo, E.H.U.ko Estetika irakaslea.

### Apirilak 9, Osteguna. 11'30tan eta 18'00tan.

Hitzaldia: XABIER LAKA, "Artearen inguruan".
Aurkezlea: Mikel Iriondo, E.H.U.ko Estetika irakaslea.

### Apirilak 14, Asteartea. 11'30tan eta 17'30tan.

Hitzaldia-Elkarrizketa: ENRIQUE URBIZU, "Zinea: istorioak kontatzearen ofizioa".
Aurkezlea: José Luis Rebordinos, Kultur Udal Patronatuko Zine Saileko Arduraduna.

### Apirilak 30, Osteguna. 11'30tan.

Zine emanaldia: **Enrique V**, Kenneth Branagh, 1989.

### Apirilak 30, Osteguna. 17'30tan.

Zine emanaldia: **Hamlet**, Laurence Olivier, 1948.

### Maiatzak 14, Osteguna. 11'30tan eta 17'30tan.

Organu kontzertu didaktikoa: FERNANDO GONZALO.
Egitaraua:
Pastorala (J. S. Bach)
Sonata (Gorriti)
Sonata (Larrañaga)
Pastorala (César Franck)
Aurkezlea: Lontxo Ohiartzabal.

### Maiatzak 19, Asteartea. 11'30tan eta 17'30tan.

Hitzaldia: JULIO MEDEM, "Zinea egitea: kimika eta miraria".
Aurkezlea: Sara Torres, E.H.U.ko Estetika irakaslea.

Emanaldi guztiak Zorroagako Filosofia eta Heziketaren Zientzien Fakultateko Areto Nagusian ospatuko dira, Maiatzaren 14ko kontzertu didaktikoak ezik, Zorroagako Elizan ospatuko bait dira.